6015

EBAZPENA, 2008ko urriaren 8koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Legazpiko (Gipuzkoa) Azpikoetxea paper-errota, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Legazpiko Azpikoetxea paper-errotak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Legazpiko (Gipuzkoa) Azpikoetxea paper-errota, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin, II. eranskineko deskripzioarekin eta III. eranskineko baimendutako eskuhartzeen erregimenarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Legazpiko Azpikoetxea paper-errota Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84 eta 86 artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia-San Sebastián kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Legazpiko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera eta Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

6015

RESOLUCIÓN de 8 de octubre de 2008, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Molino Papelero Azpikoetxea, sito en Legazpia (Gipuzkoa).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Molino Papelero Azpikoetxea, sito en Legazpia, atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Molino Papelero Azpikoetxea en Legazpia (Gipuzkoa) conforme a la delimitación que figura en el anexo I, la descripción obrante en el anexo II y el Régimen de Intervenciones Permitidas en el anexo III.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Molino Papelero Azpikoetxea, sito en Legazpia para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Legazpia y a los Departamentos de Cultura y Euskera y Ordenación y Promoción Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 8a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

a) Mugaketa-eremua.

Mugaketaren baitan, papera egiteko errota bera, errotak funtzionatzeko bere barruan dituen ondare higigarriak eta errota inguratzen duen ingurunea sartzen dira.

Mugaketa-eremuaren eskema egiterakoan, esan behar da atzealdeko fatxadak Urola ibaiaren gaur egungo ibilguarekin egiten duela muga, fatxada nagusiak Patricio Elorza lantegietara sartzeko barruko kalearekin, eta ipar-ekialdean eta hego-mendebaldean alboetara dituen beste pabilioi batzuekin.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Proposatzen den mugaketaren arrazoia da fatxada nagusia adierazgarriagoa dela albokoak baino, alboko fatxadak beste eraikin batzuei txertaturik daudelako, eta atzeko aldeko fatxadan, berriz, eraikinari lotua dagoen ibaia bera da muga naturala zein den adierazten duena.

Hori dela-eta, mugaketa honetan, papera egiteko errota ez ezik, azpiegiturak, lantegian dauden higigarriak eta inguratzen duen ingurunea ere sartu dira.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2008.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

a) Ámbito de la delimitación.

La delimitación incluye por un lado, el propio molino papelero, junto con los bienes muebles ligados al proceso productivo en él contenidos y el entorno que rodea el molino.

Así, el área de la delimitación queda definida esquemáticamente en la fachada trasera por el cauce actual del río Urola, en la fachada principal por la calle interna de acceso al conjunto fabril Patricio Elorza y al noreste y suroeste por los límites medianeros propios del edificio con los pabellones vecinos.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por el carácter más representativo de la fachada principal respecto a unos laterales que responden a una disposición embebida o medianera con otros inmuebles, mientras que en la fachada trasera es el propio río relacionado con el edificio el que marca su limite natural.

Por ello, esta delimitación incluye no solo la edificación del molino papelero propiamente dicha, sino también las infraestructuras y los bienes muebles en el molino contenidos y el entorno que lo rodea.


Calle
Urola
Antigua
Papelera
Antigua
Papelera
Azpikoetxea
Río
Urola
ESKALA / ESCALA
20 0 20 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Molino papelero Azpikoetxea.
Azpikoetxea paper-errota.
Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerria / Municipio: LEGAZPI
Data / Fecha: 20/08/2008
Eskala / Escala: 1:1000

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

Azpikoetxea eraikina XX. mendearen lehen hereneko hormigoi armatuzko lantegien artean dago, Urola ibaiaren aldamenean. Azpikoetxea eraikinak alboetako eraikinekiko duen aldea da sarrerako fatxada landu gabeko harriz egindakoa dela, hain zuzen ere XIX. mendean jasotako eraikinak zuena bera. Eraikin horretan XIX. mendean papera egin zuten. Oina laukizuzena duen eraikina da Azpikoetxea, eta teilatua, berriz, bi uretakoa, fatxada nagusiaren paralelo bi bizkar dituena; fatxada hori, gainera, ezkerretara duen pabilioiaren barruan sartuta dago. Beheko solairua eta beste bi solairu ditu, eta zati batean baita sotoa ere. XX. mendean aldatu egin zuten barneko aldea, eta harlauzak eta hormigoi armatuzko zutabeak eta habeak sartu zituzten, burdinazko habeekin eginak. Teilatuari egitura metalikoa jarri zioten. Fatxada nagusian hiru hutsune daude, harlanduzko ateburuak dituztenak, eta Elorza familiaren armarria ere badago bertan. Erdiko ardatza zertxobait nabarmentzen da, eta beheko solairuan handiagoa den sarbide bat ageri da, gaur egun itxita dagoena, eta lehen solairuan balkoia du. Beheko solairuak eta lehenengoak agerian dute landu gabeko harriz egindako pareta, eta bigarren solairua gris kolorez entokatuta dago. Fatxada nagusian, urteetan zehar izandako aldaketak ageri dira: beheko solairuan sarrera nagusia itxita dago, eskuineko aldean beste sarrera bat egin da eta altuera areagotu egin dira. 1928. urtean, eraikina eraberritu egin zuten, ibai alderantz handitu, hormarte bat erantsi eta solairu bat gehiago jarri zioten. Alboetako fatxadak mehelinak dira; ezkerrekoa alboko eraikinean sartuta dago, eta tarte batzuk irekita ditu, eta eskuinekoak goiko solairuan baino ez ditu leihoak; beheko solairuan, berriz, arku itxurako baoa ageri da. Atzeko aldeko fatxada handitu egin zen, eta errekaren aldera dagoen itxitako fatxada da, nahiz eta hutsune horizontal batzuk dituen.

Azken garaian, xehatzeko gela, fintzekoa, eta motorren eta transmisioen gela egon zen bertan. Sotoan turbinarentzako erabiltzen zen garai bateko azpiegitura hidraulikoa dago oraindik ere. Azken garaian, eraikin hau errotak eta zilindroak zeuden eraikin gisa zen ezagutua. Makinak mugiarazteko indar gisa, batetik Azpikoetxeko ur-saltoaren indarra erabiltzen zuen, baina baita diesel motoreak eta lurrunezko turbina bat ere.

Jarraian, eraikinean dauden makinak eta fabrika-obrak deskribatuko ditugu, eta baita eraikinaren barruan dagoen azpiegitura hidraulikoa ere, horiek guztiek osatzen baitute kultur arloko interesa duen ondasun higigarrien multzoa. Guztiak ere Azpikoetxea deituriko eraikinaren solairuren batean daude.

Sotoa:

XIX. mendean paper-fabrika eraikitzeko oinarritzat hartu zen errotaren ur-jauziari dagokion azpiegitura hidraulikoaren fabrika-obra da.

Behe-solairua:

– Lehen solairuan dauden makinak martxan jartzen zituzten motorrei eusteko puntuen fabrika-obra dago.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

El inmueble Azpikoetxea se ubica entre pabellones fabriles de hormigón armado del primer tercio del siglo XX, dispuestos junto al río Urola. Azpikoetxea se diferencia de las naves vecinas por mantener la fachada de acceso en muro de mampostería como elemento propio de la construcción del siglo XIX. En el inmueble durante el siglo XIX, se fabricó papel. Azpikoetxea es un edificio de planta rectangular y dos cubiertas a dos aguas con caballetes paralelos a la fachada principal que parcialmente se ubica embebido en el interior del pabellón vecino a su izquierda. Cuenta con planta baja y dos pisos altos y parcialmente un sótano. Su interior ha sido modificado en el siglo XX introduciéndose losas, pilares y vigas de canto de hormigón armado, forjados con viguería de hierro y estructura metálica en cubierta. La fachada principal se dispone con tres ejes de vanos adintelados recercados con sillares y con un escudo de la familia Elorza. El eje central se destaca levemente con un antiguo acceso en planta baja de mayor tamaño, actualmente cegado, y balcón en el piso primero. La planta baja y la primera muestran el muro de mampostería y el piso segundo está acabado con un revoco gris. La fachada principal muestra los diferentes cambios que ha sufrido, cierre del acceso central en planta baja, nuevo vano en lateral derecho y aumento en altura. En 1928 el edificio, fue remodelado, se amplió hacia el río, adosándole una crujía y se elevó un piso. Las fachadas laterales actúan como medianeras, la izquierda está embebida dentro de la nave vecina con la que se relaciona espacialmente por medio de algunas aperturas y la derecha presenta ventanas tan sólo en el piso superior y un pequeño vano en arco en planta baja. La fachada trasera producto de una ampliación es un cierre que mira al río mediante una serie de vanos horizontales.

En la última época albergó la sala de molienda, refino, motores y transmisiones. En el sótano se conserva la antigua infraestructura hidráulica para la turbina. Este edificio se conocía en la última etapa como edificio de sala de molinos y cilindros. Utilizaba como fuerza motriz, además del aprovechamiento del salto de agua de Azpikoetxea, motores diesel y una turbina de vapor.

A continuación se describe la maquinaria y/o obra de fábrica de la misma, así como la infraestructura hidráulica que se encuentran en el interior del edificio que conforman los bienes muebles que presentan interés cultural y están unidos a su ubicación en las distintas plantas del edificio denominado Azpikoetxea.

Sótano:

– Obra de fábrica de la infraestructura hidráulica del salto de agua del molino sobre el que se construyó en el siglo XIX la fábrica de papel.

Planta baja:

– Obra de fábrica de los apoyos de los motores que accionaban la maquinaria que se encuentra en la planta primera.

– Azpiegitura hidraulikoa

Lehenengo solairua:

– Harrizko lau errota, hormigoi armatuzko upeldunak, 2,5 metroko diametroa eta 0,6 metroko altuerakoak. Bakoitzak bi harri ditu, 1400 x 450 neurrikoak.

– Fintzeko bi aska, 250 kg ore lehorrentzako. Horietako bat Esteban Gorostidi markakoa da, diametroa metro betekoa du eta hasieran motore elektriko bati lotua zegoen. Fintzeko bigarren askak antzeko ezaugarriak ditu, eta hori ere hasiera batean motore elektriko bati lotua zegoen.

– Bi bahe dardarkari, 1,7 m X 0,60 m X 0,20 m-ko neurria dutenak. Bahea sabaitik zintzilik dago, egurrezko kutxa baten barruan, eta kontramartxako lau burdinarekin dago lotuta. Burdina horietako bakoitzak bere motorra du, mugiarazi egiten zuen bahea, eta horren bidez paperaren orea eta zikinak bereiztu egiten ziren.

– 2,20 eta 1,60 metroko Pulp Masterra, metalezko lau oinen gainean dagoena, eta oinarria obran egindakoa.

– Orea garraiatzekoa. Hasieran lau gurpildun gurdi txiki batetik zintzilik egoten ziren metalezko lau ontziak geratzen dira oraindik; desbideratze erraza zuen bide batean mugitzen ziren.

Bigarren solairua: kolak prestatzea.

– Hormigoi armatuzko hiru biltegi.

– Txapazko nahasgailua, mugiarazle bertikala eta hodibihurriak dituena.

Zama-jasogailua:

Kabina irekia dauka, 1700 X 1150 X 1000 neurrikoa, kontrapisuen bidez orekatua. Kable bidez mugiarazten da, vis sin fin erreduktorearen bidez mugiarazitako tanbor batean biltzen diren kable bidez, eta Siemens motore elektrikoa du, 5,5 CV 950 rpm ezaugarriak dituena; galga elektriko magnetikoa eta etengailu automatikoak, hartunedunak.

III. ERANSKINA

BAIMENDUTA DAUDEN ESKU-HARTZEEN ERREGIMENA

1. artikulua.– Ondasun higiezinak.

1.– Papera egiteko errotan baimenduko diren esku-hartzeak hauek izango dira: eraikuntzako finkatzeko esku-hartzetzat jotzen direnak, hau da, Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 317/2002 Dekretuan adierazten direnak; horiez gain, goragoko mailetan sartuta daudenak ere baimenduko dira.

2.– Baimendutako esku-hartzeen helburua papera sortzeko prozesua ezagutarazi eta azaldu ahal izatea bultzatzea izango da, bai eta horiek higiezinarekin duten lotura erakustea ere. Hori hala izanik, urarentzako sarbide bat egingo da, produkzio-sistemak nola ziharduen ulertu ahal izateko.

– Infraestructura hidráulica.

Planta primera:

– Cuatro molinos de piedra con cuba de hormigón armado de 2,5 metros de diámetro y 0,6 metros de altura con dos piedras cada uno de 1400 x 450.

– Dos pilas de refino para 250 kg de pasta seca. Una de ellas es de la marca Esteban Gorostidi con cilindro de 1 metro de diámetro y unido en origen a un motor eléctrico. La segunda pila de refino de similares características unida igualmente en origen a un motor eléctrico.

– Dos tamices vibradores de 1,7 m X 0,60 m X 0,20 m. El tamiz o cedazo propiamente dicho cuelga del techo dentro de una caja de madera mediante 4 hierros con contramarcha, cada uno de ellos cuenta con motor propio que le imprimía un movimiento por el que hacía que la pasta de papel se desprendiera de las impurezas.

– Pulp Master de 2,20 m y 1,60 m sobre cuatro patas metálicas y base de obra.

– Transportador de pasta. Se conservan los cuatro cubos metálicos que en origen se colgaban a un carrito de cuatro ruedas que corrían sobre una vía con desvío sencillo.

Planta segunda: preparación de colas.

– Tres depósitos de hormigón armado.

– Mezclador de chapa con agitador vertical y serpentín.

Montacargas:

Cuenta con una cabina abierta de 1700 X 1150 X 1000 equilibrada por contrapeso accionado por cables que se enrollan sobre tambor movido por reductor de vis sin fin y motor eléctrico Siemens 5,5 CV 950 rpm con freno electro-magnético e interruptores automáticos con acometida.

ANEXO III

RÉGIMEN DE INTERVENCIONES PERMITIDAS

Artículo 1.– Bienes inmuebles.

1.– Las intervenciones autorizadas en el molino papelero, serán las reflejadas en el Decreto 317/2002 sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado del Gobierno Vasco, para el tipo de intervención constructiva denominado Consolidación, además de las incluidas en los niveles superiores.

2.– Las intervenciones permitidas tendrán como fin posibilitar el conocimiento y exposición del proceso productivo del papel y su relación funcional con el inmueble. En este sentido se dispondrá una entrada de agua que posibilite el entendimiento de su sistema productivo.

3.– Ondasuna guztiz edo partzialki eraisteko, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluak eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuak (sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa) araututakoa bete beharko da.

2. artikulua.– Ondasun higigarriak.

Babestutako ondasun higigarriei (II. eranskinean zerrendatu eta deskribatu direnak) buruzko esku-hartze guztiek (zuzenak edo zeharkakoak) ondasun horiek zaintzea eta etorkizunera osoki transmititzea izan behar dute helburu. Horri dagokionez, honako esku-hartze mota hauek baimenduko dira: prebentzioz kontserbatzea edo zaintzea, kontserbatzea eta zaharberritzea. Horiek, hain zuzen, jarraian azalduko diren jarduerei egiten diete erreferentzia:

a) Erregimen honen ondorioetarako, «prebentzioz kontserbatzea edo zaintzea» aipatzean, ondasuna baldintza onetan erabiltzeko eta gozatzeko aukera ematen duten ekintzak egitea adierazi nahi da; hau da, aldaketak saihesteko eta narriadura gelditzeko ezinbesteko diren baldintzak jartzea, bai eta ondasuna behar bezala mantentzeko beharrezko diren aldian behingo ekintzak egitea ere.

b) Ondorio berdinetarako, «kontserbazioak» esku-hartze teknikoko ekintza zuzenak egitea adierazi nahi du; hau da, teknika horiek helburu terapeutikoak izango dituzte babestutako ondasun higigarrian, eta, horrela, horien narriadura atzeratuko dute.

c) «Zaharberritzea», berriz, babestutako ondasun higigarria zertarako den hobeto ulertzeko zuzeneko ekintzak egiteari deitzen zaio; betiere, ondasunaren osotasun estetikoa, fisikoa edo historikoa errespetatuz.

II. eranskinean jaso diren babestutako ondasun higigarriak jatorrizko lekuan (atxikita dauden lekuan) mantendu beharko dira, eta, horrela, testuingurutik kanpo gelditzea saihestu eta produkzio- eta industria-prozesuko elementutzat duten balioa errespetatuko da. Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak babestuko ditu ondasun horiek, eta lege horretan esaten dena bete beharko da.

Uztailaren 3ko 7/1990 Legearen (Euskal Kultur Ondareari buruzkoa) 23. artikuluan xedatutakoa betez, babestutako ondasun higigarrien zaintza egokia bermatzen duten eta horien industria- eta produkzio-ezaugarriak errespetatzen dituzten erabilera guztiak baimenduko dira.

Bestalde, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 24. artikuluan xedatutakoari jarraiki, babestutako ondasun higigarrien jabeek eta horien gaineko eskubide erreala duten titularrek beharrezko den informazio guztia eman beharko diete agintari eskumendunei, lege hau aplikatzeko. Horrez gain, agintari horiei baimena emango diete aipatutako ondasun higigarrietan sartzeko, ikuskatzeak egiteko beharrezkoa den aldi oro; lehenengo, ordea, eskaera egin beharko dute.

3.– Únicamente podrá procederse al derribo total o parcial del bien de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos.

Artículo 2.– Bienes muebles.

El objeto de todas las intervenciones permitidas directas o indirectas sobre los bienes muebles protegidos enumerados y descritos en el anexo II debe de ser su preservación y transmisión integra al futuro. En este sentido los tipos de intervención que se permiten son los de conservación preventiva o preservación, conservación y restauración, que se refieren a las actuaciones que se señalan a continuación:

a) Se entiende por conservación preventiva o preservación a efectos del presente régimen la realización de acciones indirectas que permitan el uso y disfrute del bien en condiciones óptimas, poniendo las condiciones precisas para evitar alteraciones y frenar el deterioro, así como aquellas acciones directas periódicas necesarias para el adecuado mantenimiento del bien.

b) A los mismos efectos, se entiende por conservación la ejecución de aquellas acciones directas de intervención técnica con fines terapéuticos sobre el bien mueble protegido encaminadas a retardar su deterioro.

c) La restauración se define como la realización de acciones directas sobre el bien mueble protegido para facilitar su comprensión, siempre desde el respeto hacia su integridad estética, física o histórica.

Los bienes muebles protegidos recogidos en el anexo II deberán permanecer en su ubicación original, a la que están adscritos, evitando su descontextualización y respetándose su condición de elemento objeto del proceso productivo e industrial, quedando amparados y sujetos a la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, se permitirán todos aquellos usos que garanticen la debida conservación de los bienes muebles protegidos y respeten su carácter industrial y productivo.

Por otra parte, según lo dispuesto en el artículo 24 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, los propietarios, poseedores y titulares de derecho reales sobre los bienes muebles protegidos, deberán facilitar a las autoridades competentes la información que resulte necesaria para la aplicación de dicha Ley y, permitir el acceso de las autoridades a los citados bienes muebles, previo requerimiento y siempre que sea necesario a los efectos de inspección.